



IRAILETIK AURRERA HOBEEKUNTZAK BURUNTZALDEAKO LINEETAN

Donostia, 2021eko uztailaren 19^a.- Duela bi astetik hona Buruntzaldean emakida berriak eskaintzen duen autobus zerbitzua hobetzeko asmoz, Rafaela Romero Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Foru Diputatua eta Ander Iturri Mugikortasuneko Zuzendaria, zerbitzua eskaintzen duten herrietako alkateekin bildu dira, kontzesio berria martxan jartzeak dakartzan arazoak ahalik eta azkarren identifikatu eta konpontzeko.

Mugikortasun Departamentuak arazoa diagnostikatu eta 15 eguneko epean konpondu du. Makineria guztia jarri da martxan, eraginkortasuna eskaintzeko eta Gipuzkoako herritar guztiei, non bizi den kontuan hartu gabe, oinarrizko zerbitzu publikoak, hala nola garraioa, eskuratzeko aukera bermatzeko.

Zerbitzuan gertatzen diren aldaketa garrantzitsuenak herritarren eskaerari erantzuten diote eta modu mailakatuan jarriko dira indarrean, guztiak irailerako aplikatzeko aurreikuspenarekin.

USURBIL – Udalerria Donostiako Ospitaleekin lotzen duen BU02 linea egokituko da, langileen kolektiboarentzako zerbitzua bermatzeko eta konexio horren erabiltzaile nagusiak diren adinekoen eskarira egokitzeko.

IRURA (N1eko udalerrriak) – Donostia-Tolosa (Herriz Herri) BU07 zerbitzuaren maiztasuna handituko da, eta ordu erdiro izango da (gaur egungo orduaren aurrean), Donostiari eta gainerako udalerriei dagokien udalerrriaren lotura bermatzeko.

HERNANI – BU11 linearen maiztasunak aldatu egingo dira; 20 minututik behin pasatuko da egun osoan, puntako orduaren maiztasunarekin lanaldi osoan.



TOLOSA – Eskaintzen diren zerbitzuak aldekoak dira, eta erabiltzaileek eskerrak ematen dituzte flota eta zuzeneko zerbitzuak berritzeagatik.

LASARTE-ORIA – Eskaintzen diren zerbitzuak aldekoak dira, eta erabiltzaileek eskerrak ematen dituzte flota eta zerbitzuak berritzeagatik.

ANDOAIN – Pasatzeko maiztasunak Hernaniko udalerrirako planifikatutako doikuntzekin hobetuko dira.

ASTIGARRAGA – BU12ren trazadura-aldaketa, barne-trafikoa askatzen duena, positiboki baloratu dute erabiltzaileek. BU13aren maiztasunak hobetzeko alternatibak baloratzen ari dira, BU12 linearen ibilbidearen iraupena eta errefortzu-autobusen inpaktua egokituz. Hobekuntza horrekin, autobusen maiztasuna 20 minutura handituko da udalerritik igarotzen diren autobusetan — gaur egungo 30 minutuen aldean—, eta horri esker, azken urteotan udalerrriak izan duen biztanleria-hazkundeari erantzun ahal izango zaio.

URNIETA – BU05 eta BU06 lineak koordinatzea, Urnieta, Andoain eta Hernani udalerrien arteko harremana hobetzeko.